

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak “ahalegin, energia eta eraginkortasun gehiago” eskatu die Gobernuko goi-kargudunei legealdiaren bigarren erdirako

*Nabarmendu du prestazioen kalitateari eutsi dietela, aurrekontuak urriak izan arren*

Jueves, 05 de septiembre de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak “legealdiaren bigarren erdirako ahalegin, energia eta eraginkortasun gehiago” eskatu die Gobernuko kontseilariei eta Foru Administrazioako goi-kargudunei, eta “lan handia” egiten ari direla aintzatetsi du, “legealdi zailenaren erdi-erdian”.

Izan ere, Gobernuo kontseilariekin eta kabineteko zuzendari nagusi, zuzendari-kudeatzaile eta kabinete-buruekin bildu da Nafarroako Errege Arxibo Nagusian, ikasturte politiko berriaren hasiera dela eta hitz batzuk esateko.

Legealdiaren hasieran, 2011ko abuztuan, esandako hitzak ekarri ditu gogora, “aurrekontu txikiagoekin gehiago” egitea eskatu baitzien, eta esan die lortzen ari direla, aurrekontua 2007koa baino %25 txikiagoa den arren. Horren harian honako hau esan du: “Gobernua, gai bada hiru mila milioi euroekin eta aurrekontu urriarekin prestazioen kalitateari eusteko, ez dago geldirik”. Eta adone eman die “biztanleek erakundeak eta administrazioa geldirik daudela sinestea nahi dutenei aurre egiteko”. Defizitaren helburua lortu izanaz ere aritu da: “badakigu herritarrek ez dutela lorpen hori gehiegi baloratzen, baina badakigu, baita ere, gauden egoeran eman beharreko pausoa dela, krisia gainditzeko ezinbestekoa”.

Esan du, gainera, “harro” dagoela “Gobernuan dagoen batasunaz eta leialtasunaz” eta “errua alboko departamentuari egozteko aukera erraza” ez erabiltzeaz.

Azkenik, Yolanda Barcinak adierazi du bere nahia dela “Komunitatean enplegua eta aberastasuna sortzen dutenek, batik bat enpresaburu txikiek eta langile autonomoek, Administrazioak ulertu eta babestu egiten dituela eta haien alde eskura daukan guztia jartzen duela sentitzea”. Dena den, uste du “arlo horretan oraindik zer egina” badagoela



Yolanda Barcina Foru Administrazioako kontseilari eta goi-kargudunei hizketan.

eta, horregatik, bertaratuei “talde-lana, kemena, asmamena eta ausardia” eskatu dizkie.